

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Joxe Iturbe Garai

*Arrasate
Gipuzkoa (1933)*

Aurkibidea



Biografia



Bioso (Bidasoro) baserrian jaio zen 1933an. Aita bertakoa zuen eta ama Bedoñako Artia (Arteaga) baserrikoa. Sei urterekin auzo-eskolan hasi zen eta hurrengo urtean abadetxeko eskolara pasatu zen. Hemen urte pare bat egin eta kaleko eskola nazionaletara joan zen hurrengo bost urteetarako. Baserri eta baso lanetan aritu izan da beti. Artzaina izan da umetatik. "Malbe" pertsonaia, Bioso baserrian jaioa, "tio Alejandro" izan zen Joxerentzat, bere aitajaunaren anaia.

Zintak

ARR-078

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-07-04
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

ARR-079

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Arrasate.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-07-04
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Abadeak zigortu egiten zituen

- **Erref:** ARR-078/003
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:03:44. **Bukatu:** 00:04:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Abadeak zigortu egiten zituen. Oiloei harrika egitearren artaleen gainean belauniko ipini zituen mutikoak. Auzotarrek egurra eramaten zieten abadeari eta honek mutikoak ipintzen zituen egurra mozten.</p>

Transkripzioa

-Guri hemen abadiak eta bai, holako fetxorixan bat eitten bageben e... nik

neuretako maistrorik txarrena bera izen zuan. Han behin ez jakixat / etxaixat/ harrike oillue jo edo zeozer, holakoren bat ein gutsan ta, zerien artale gaiñetan belauniko ifiñi ta ein juskuan eskolan.

-Artale gaiñian belauniko?

-Bai.

-Harrixei... osea, oilluei harrixek botatiagatik?

-Bai.

-Mekauen zotz! Hori mingorra izengo da, e?

-Bai, hombre! Mingorra, horixe! Bai. Ez jakixat /etxakixat/ akabau edo ein geben /ingen/ edo zer ein geben /ingen/. Hiru-lau mutiko gitzuan harrike edo ein gutsenok eta... bai, gero... Bai, ha gogorra zuan e... Ta hortik aparte, igual e, eskolie emuten juan ta hortik aparte eitten juskuan e... klaro, abadie ta eruten jutsien ba auzokuek egurre. Hara.

-Karo, bai, bai, bai, bai.

-Ta mutikuek, ba, mutikuek ia zortzi-hamar urte inguruko mutikuek gitzuan ta bera jarten zuan han astuaz, astue esaten gutsan guk, hola egurre eukittekue, ta han ala! Berak eutsi ta mutiko bi ifini han ta egurre ebai ta holakuak eraitten juskuan beti, ekiñaldi batzuk. Bai.

-Ia, ia. Oseake auzotarrak egurra ekarri eta...

-Eta mutikuek, mutikuek ebai. Bai. Bera gertu ifini behintzet. Bai. Holakuek ein gittuan. Hor e, eskolako, horko eskolako pasadizuok holakuok izen zittuan.

2. Idiekin egurra garraiatzen zuen

- **Erref:** ARR-078/005
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:10:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Behiak, ardiak eta idiak zituzten etxean. Idiekin asko ibiltzen zen bera. Egurra garraiatzen jarduten zuen. Zuhaitzak trontzarekin botatzen zituzten.</p>

Transkripzioa

-Eta urte horreittan etxian ganauak-eta eukiko zittuein?

-Bai, bai, ganaue beti. Ganaue ta...

-Zenbat buru?

-Lau-bost behi ta idixek. Orduen idixe zoan, joe, oin kotxie eukittie letxe. Bai. Edo traktorie.

-Idixak etxeko lanetarako zittuein edo karreterogintzarako?

-Bai e, bueno, segun zela gebitzen edo. Etxien bateronbat libre baeuen ta karreterixia agerketan bazan, ba, karreterixarako be bai. Bai. Etxeko lanak ein eta hortik aparte, ba, orduen dana idixekin eitten zoan, ta leku askotarako izeten zittuan zerak eta bai e... Bai, aittejaune ibiltten zoan idixekin. Aitte be bai. Ardixokin bittarteren bat be baeuen ta, pedidoren bat be baeuen nunbaitterako, ta gero neu be asko ibili nintzuan idixekin. Hemen, ba, batien aitte ardixekin ta zerien ta, ba, piñue bota... zeren bat be baeuen, ha igartuaz ta hor makiña bat basotan ibilitte nau ni idixokin piñu-karriuen.

-A egur-karriuen [...], ezta?

-Bai, bai, bai.

-Ta ikatzik ta ekarten...?

-Iketza ez. Geuk ez juau /etxuau/ sekule ein iketzik. Ez.

-Baiñe iñok, iñok inddekua ekarri mendittik?

-Ez, ez, ez, ez. Ni mendittik e... mendixen iketzgiñek makiña bat ikusi bai han, han mutikotan pastore edo bilddots zainketan ta egoten nitzenien makiña bat iketzgin ikusi bai, baiñe ez. Guk geuk heme...hemengo jentiek iketz-karriuen ez jok /etxok/ ein, "más bien" in juek e, hor Korueta aldeko jendiek eta, Arientza ta hor e, Mendiola aldekuiek eta horko jentie, hurraa zela hartzen eben mendixe, haik ein juek. Hemetik hara e, hemen sekule ez juat /etxuat/ pentsetan iñor ibiliko zanik.

-Ia. Oseake hamen idixekin ibiltten ziñenok...

-Egurria, egur arrastria, bai. Parte. Arrastrie ta bueno, orduen apeie be ibiltten zuan zurittute ta basuen asko ta haik be ba kamioi kargetako destinora eruen bai.

-Noraiño ekarten zebein egurra?

-Egurre erueten gixoan hemen baso danetatik ba zereraiño, Zubibarriraiño. E, beheko...

-Ta hara kamioia etorten zan?

-Hara kamiona. Bai. E, hara honezkero hirurogehi bat urte badittuk e, zerak, horra... Andra Mari zuri jakingo dok ba nun dauen? Horra kamiñuoi ein zala hirurogehi bat urte izengo dittuk. Pasau. Ta orduen, oin hirurogei urte ez jauan /etxoan/ egur asko e! Piñue handik...

-Orduentxe saltzen...

-Bai, handik atzerakuok. Eta guk e, nik hamazortzi-hogei urte naukenien eitten gixoan, ba, hor bastante batien-bestien euzen piñuek hartzen gittuan, ba, edo Sologaizton bittartez edo bateron batek /batonbatek/ geuri emunde edo... Ta orduen ein biher izeten zuan ha apeie bota, zurittu, eta kamioiendako karriau. Ta hortan ein gixoan idixekin ta, bai. Etxeko lanak eitten zienien, bittartie hartu ta...

-Ta bota zela eitten zeuein? Trontziekin?

-Trontziekin. Trontziekin. Ta gero hak justo... honeik arkuen zerratxuok eta haik ha piñu haundixe ez bazan ba kortietarako ta ba samurraua eitten zuan, batek igual eitten juan eta ba hola ibiltten gitzuan. Edo paliaz ha hartu, zurittu ta... ba holan izeten zuan. Zertute itxi, pillak eindde. Hueko batzuk ein ta gero ha udabarrixen eindde baeuen ta ba setienbrien edo faten bahitzen karriuen, ba, egoten zuan arin-ariñe. Samurre manejetan zoan.

-Ia, karo.

-Bai. Ta orduen ba ha eindde be zeozer. Behintzat pezeta bat atara eitten zoan, ta hala zoan, orduko...

3. Pinudiekin asko irabazten zen hasieran

- **Erref:** ARR-078/006
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:10:38. **Bukatu:** 00:11:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Bera gaztea zela pinu askorik ez zegoenez, pinudiak zituenak irabazi handiak izaten zituen.</p>

Transkripzioa

-Ta etxeko basuetan eitten zeuein, edo...?

-Ez, ez, artien, guk geuk ez geukan artien piñurik eta guk be geruau sartu

gittuan, ta baiña aurretik sartuteko batzuk bajaozan ta ba eurak ezin te geuk eitten gittuan.

-Orduan piñua ondo pagetan zan, ezta?

-Bai, bai. Orduen e, orduen ugezabai lana ein ta erdixe baiño gehixau berak e, geraketan jakuan. Iñoi lana eraindde. Hoge mille pezeta gera... hartzen bazien, berandako hamabi ta lana ein euenandako /enandako/. Bai, komenta holan izeten zoan.

-Baiña lehen kubikua ondo pagau.

-Bueno, kubikue guk... bai, kubikuaz ez jakixat /etxakixat/ e, guk kubikuaz eitten gixoan lana ba bota ta gero ba haik izeten zittuan e, zerrarixen lanak izeten zittuan gaiñetik guk eta nik horixe.

-A, zuek gehixen bat apeatan ibili ziñein?

-Apeatan batzuk erdire ta holako zerak itten gittuan, apea. Ta matarrazan be bai. Baiña matarraza [itten] gixoan, ba, bueno metro kubikoko, hainbeste. Bota ta pillatu gero. Ta gero ba propietarixuaz ba zerrarixek berak eukitten juan tratue eindde ta guk kobretan gixoan ba metro kubikoko hainbeste. Bai. Bai.

4. Gari eta artasoroak eskuz mozten zituzten

- **Erref:** ARR-078/007
- **Iraupena:** 0:04:17. **Hasi:** 00:11:45. **Bukatu:** 00:16:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Gari eta artasoroak zituzten. Idiekin ibiltzen zen makina behin edo behin erabili zuten baina inguru malkartsuak direnez, igitaiaekin mozten zuten gehienetan. Belarra ere segarekin mozten zuten, baina gerora makina ekarri zuten, hiruren artean erosita.</p>

Transkripzioa

-Eta ee...

-Ta hortik aparte, ba, hemen itten zoan, ba, orduen baserrixen, ba, beste postura baten itten zoan lana ta ba...

-Karo, garixe ta...

-Garixe erain urtero. Ba hemen hektarea bi solo, ba bata egoten zoan gari ta bestie egoten zoan, ba, arto.

-Arto.

-Bai. Hori matematiko. Ta ein ein biher izeten zoan, ez jauan /etxauan/ beste soluziñorik. Ta gari... allegetan zanien, igetaixe hartu te igetaixaz ebai ta ba...

-Zuek gari-ebateko makiñiakin ibili zai sekula?

-Urte baten-edo ebai gaixuan, baiñe honeik aldapa-antzak dittuk. Makiñie idixekin ibiltten zana, e!

-Bai, bai.

-Idixekin ibiltten zana. Bai. Bai. Ta hor be pasetan zuan goittik behera bajau ebaten, trabesien fan ta gero behetik gora igo biher bazan, bi idi pare biher izeten zittuan. Behetik gora altzetako. Bestela ez jutsan /etxutzan/ emoten reboluziñorik kutxilliei ta. Ta urte baten-edo ebai gaixoan, baiña, ba, ez gaixoan holako... bai, hareaz, ba, zatixe agurua botaten dok, baiñe... honeik dittuk nehikua aldapa lan hortarako. Nehikua aldapa. Bai.

-Eta bedarra ebaten makiña hori ebalten zebein?

-Ez, ez. Orduen segie.

-Segaz.

-Orduen segie, orduen segie. Bai, bai. Segie. Haik eta lenengo [rapizioi] erosi geben arte... Zetako ete zan, zertarako ete zan ta Mondrauen han ferixara fan ta han begire. Barrena-edo zuan, hor Bergarako mekaniko bat. Eta... "Zertako dok hau?" ta "Bedarra ebateko", "Bedarra ebateko?" Ta joe... [gaizto]... ta... "Aber, ba, emoixok hemetik eta hartik" eta zera ta, ba, enbragie kendu ta... "ra, ra, ra,ra..." ta "ra!" martxa-atrasa, ta han hiru-lau buelta hola ta... "Aiba dios!" Ta esan nutsan beste bati: "Ze kristo! Ta zenbat diru balio dau?". Ta hogeita hemeretzi mile pezeta. Diru asko zoan. Ta hori izengo zoan e... nox izengo zoan? "Cincuenta y ocho" edo holakoren baten. Ta berak, zera, berrogei mille pezeta behixek be ez jittuan balixo, e! Ta esan nutsan: "Kauen la puta!", "Joe bai... gure badok bai, baiñe... nik neuk ezin neikek ibili e. Heuk ebaten badok horreaz..." ta bestie ta zera ta. Bueno... ba... "Etorri hai pruebie eitten!" Etorri zoan. Ta ez gaixoan hola zelai lau-laure be erun, hola, bastante erregularrera. Ta etorri zoan, ba, zerak, grapak akoplauta kubiertetara, beste zer batzuk, rodillo batzuk. "Ra-ra!" ta joe, ebai ondo. Ta "Aiba! Hartu" ta "Hori aurrie beti garbi ibili" ta holako esplikaziño batzuk emun juskuan ta... Bueno, "Ze ingo juau, ze ingo juau?" Ta han baten aittek esan juan: "Behi bana biher juau /biejuau/ makiñioi pagetako." Ta "zuk sikiera behixek be badauketzu, ni nau ona!". Ta hola ta... Gero etorri jakuan beste bat, ta esan joskuan: "Hi, ez dutsue inporta neu be sozio sartzie?" ta "Ba ez jakixat /etxaixat/ ba, aber ze esaten dauen horrek" ta "Bai bai, igual". Bueno, ba. hiruron artien holan hartu gaixoan!

-Lehelengua?

-Bai. Hamahirune mille pezeta zoan, ta hurrengo hamabost egunera-edo ez jakixat, bigarren ferixara zoan, diruoi erun biher jakuan. Ta ni, ba, bestiengana fan ein biher, ta batek emun jostan, ta fan nitzuan beste batengana ta bestiek, hango zaharrak esan jostan: "Hainbeste diru hori katxarruoi! Ondio etxeko bedarrak neuk ebaiko nittuan!" Aittek, e! Semie zoan sartute baiña "etxeko bedarrok neuk ebaiko nittuan segaz ondio!" Ta ba dirue botatie orden be pena, badakik? Pena. Gero ez zuan /etzuan/ inor garbatu!

-Honbre, klaro.

-Gero haregaz lanok e, bedar-ebatie aguro eitten zoan. Lehena lagun bi edo gehixa fan ta ba hantxe, goixien xeiretarako fan ta eguerdixen hamabixek arte. Ta haregaz fan ta ordu bixen norberak bakarrik ebaten zoan. Ta ba holan, holan zittuan holako kontuk. Baserri kontuk hola zittuan ordun. Gogorrak zittuan e, gogorrak, gogorrak. Gogorrak.

-Bai bai, garai hartan.

-Bai.

5. Hiruzpalau gazta egiten zituzten egunean

- **Erref:** ARR-078/008
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:16:02. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Hamar urterekin hasi zen artzain. Zelai gutxi izaten ziren eta basoan ibiltzen ziren ardiak. 180 buru izaten zituzten. Egunean 3-4 gazta egiteko esnea izaten zuten.</p>

Transkripzioa

-Eta ardixak be eukiko zittuein, ezta?

-Bai, bai, nik ardixek...

-Zuk umetatik ezautu...

-Nik zortzi urtetik ezautu nittuan ardixok. Ni hamar urteaz banebillan ardi zain be. Bai, bai.

-Eta ze, zuen garaixan ingo zan... zuek nun eukitten zittuain, kargalekuan, edo?

-Bai, bai. Guk beti han. Ardixek geuriek betik hara fan izen dittuk. Ta gero neguen, ba, hemen. Orduen ez jeuan /etxeuan/, esan dotena, gurien letxe artue ta garixe egoten zoan solo danetan ta zelai gutxi jeuan. E. Ta orduen, orduen basue izeten zuan ardixen pastue.

-Oin piñue dauena, ezta?

-Bai. Oin ba mendittik jeitxi ta ba basora. Hemen basora, basora. Ta bilddotsak ein ahala, ba hementxe, etxe inguruen nunbaitten, pagatxie ta eraindde egoten zoan zati batzuk ta orduko pastoretzaia hola izeten zuan. Bai, gero...

-Eta, jaitzi ardixak, eta gaztaia goixen [eitteko], ezta?

-Bai, bai, behien be bai. Gutxi asko, bixetan orduen be. Oin beste ez. Klaro, ardixe basuan ibilitte ba ez juan/etxuan/ esnerik emuten oingo moduen. Oin beste forma bat jak ia. Ardixei esnie kendu eitten jatek oin. Orduen ez. Orduen ba, goixien hartu ta ba hortik ziher bakuen aurrera ardixek eta, handik bueltie eitten gehixau kantzetan zittuanjaten euen a baiño. Ta ba esne gutxi ekarten juen. Esne gutxi ekarten juen. Orduen ba hiru-lau gazta egunien itten bazien e, goixien bi ta gabien beste bi edo, ba, alto, alto. Bai. -Ia. Eta zenbateko artaldia eukitten zebein?

-Ba orduen? Oin baiño geixau esateko. Orduen e... ba!... gero antzue ta be gehixau egoten zoan. Urte biaz ta be gutxik eitten juen, ta jan barik egoten zoan, alimentau barik eta, urte biaz ta be gutxiau eukitten juen bilddotsa ta, baiñe bestela hemen beti egon dittuk ehun ta larogei ardi inguru. Ointxe egongo dittuk ehun ta berrogei, edo hortik behera.

-Ia, ia, ehun ta larogei ardi e? Horreik gaztaiok saldu eta nun eitten zittuein?

-Bueno, orduen esan dostat, orduen gaztai gutxi eitten zoan. Orduen gaztaie, orduen gaztaie etxetik be dana saltzen zoan. Orduen ez jauan / etxauan/ gaztairik. Oin jak gaztaie ugarittute. Oin jak gaztaie ugerittute.

-Karo, ardixe [borrolau] eitten dalako eta esnie [...].

-Bai, bai, bai. Baiñe orduen pastoriek ehun ta larogei, ba, gurien be egongo zittuan urte batzutan ehun ta larogei buru inguru. Baiñe, batzeko ardixek, ba deskuidetan bahaz, zenbat? Higuerogeta hamar edo hirurogei bakarrik. Orduan bilddotsa hazi be gehixau eitten zoan. Bai. Ta gantzue be asko egoten zoan. Ta orduen, ta esan dotena, ardixen alimentaziñuan zerien esnie be, ez zuan batzen hainbeste, ez zuan batzen. Bai. Orduen mendixen, Degurixen ta zenbat gaztai eitten juan ba jentiek? Ba goixien gaztaitxo bi ta gabien beste gaztaitxo bi ta hantxe egon. Pastorie fan ta hantxe egon. Hantxe.

-Baiñe lan dana pastoriek, ezta?

-Bai, bai, bai, bai, hombre!

-Jaitzi ta.

-Jaitzi te gaztaiek ein ta gero harei kasu ein ta norberandako jana ifini ta hori danoi e, hori betik izen dok ia...

6. San Isidrotik San Cristobal arte, mendian ardiekin

- **Erref:** ARR-078/009
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:20:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>San Isidro ostean joan eta San Cristobal ingurura arte mendian ibiltzen ziren ardiekin.</p>

Transkripzioa

-Ta zenbat denborako egonaldixak itten zittuein normalian?
-Mendixen? Ba, mendixen izeten dok San Isidro ostien fan ta... Oin bilddotsak be goixau etorten dittuk. Lehen komente bilddotsa orduen e, nire gazte denporan, ba, oin berrogei urteko zerien etorten zittuan bilddotsak febreruen erdittik atzera, marzo lehenenguen hor, esateko. Ta orduen, ba, udebarrixen egoten zoan ardixe, ba, esnien, ia. Oin eneruen eitten badusk /bousk/ ba ha maietzerako jak bajetan ekindde. Baiñe marzuen eindde dauena ba ha esnie ondo jak, ta mendixen orduen ha harrapetan zoan, bilddotsa berandu baiñe faten zittuan San Isidro inguruen faten zoan jentie mendire. Ta San Isidruetatik San Kristobal ingurura arte batzen zoan ardixe. Batzuk geruau be bai. Ni akorde...zerak, Madalenak nox izeten dittuk?
-(Senidea) Hogeta batien edo.
-Julio "veintidos" edo holako bat?
-Bai, ointxe laster etorriko dia. Bai Oñatin be...
-Madalenak!
-Bai.
-Ni akordetan nok Matromariko Domingo difuntuek, han fango zuan neskaren bat mendire. Ta Madalenetan, Gordo ez zuan Madalenakue?
-Bai, bai.
-Ba, Madalenetan...
-[Zubillagan gehixau, Madalena be...]
-Bai, bai, bueno, ba, Matromariko Domingok bateron batek igo biherko / biko/ juan Matromaittik eta ekarriko juan Gordoandako esnie Madalenetan, gatzatue eitteko. Hori makiña bat bider, historikua zuan hori Degurixen.
-Hori Migelekin ein izen dau?
-Hori ez jakixat /etxakixat/, hori Mielen denporan ez jakixat /etxakixat/ ingo euen. Ez jakixat /etxakixat/ ingo euen.
-Nik Domingo ez neben ezautu.
-Bai. Domingo, Domingon epokan Madalenetan esnie egunero, urtero etorriko zoan Gordoangana, gatzatue eitteko. Bai, horreik, nik ikusitte [...] ekarten, baiñe hori Degurixen [...] ta hango komentaixuek betik. "Domingok esnie batuko dau Madalenetan Gordoai bielketako". Betik esaten juen ta...

7. Txerriak hazten zituzten ardiekin batera

- **Erref:** ARR-078/010
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:20:45. **Bukatu:** 00:23:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

<p>Hiru bat txerri izaten zituzten ardiekin batera. Gazura berotu eta asunak bertan biguntzen zituzten. Baita pago hostoak edo urritzarenak ere. Gero Arabara saltzen zituzten. Artzain guztiek izaten zituzten txerriak.</p>

Transkripzioa

-Bai, ta gero mendixen egoten zittuan txarrixek, txarrixek eruenda, gazurie jateko ta, bai.

-Zenbat txarri izan zittuen zeuk?

-Ba hirune edo eukitten gittuan, hiru bat txarri, mendire erunda. Bi-hiru, bi-hiru, segun ze... zenbat ardi euen batzeko, ba. Igual egoten zittuan antzue gehixau edo zera, ta esne gutxi baeuen ba ezin leike han gehixa eruen. Ta holako...

-Bai, gazurien neurrira, ezta?

-Bai, gazurien neurrire, bai.

-Gazuria aparte beste zeozer emuten zotsain txarrixai?

-Bai, bueno, orduen pentsu asko ez, zeoze emungo jaten, pentsu apurren bat, baiñe asko ez, ta parte izeten zuan e, asune. Asunek ebaitte ekarri, axkoriaz xehetu, ta gazurie berotuaz, baldien ifiñi ta asunek hara bota, bigundu daittezen. Ta asune ez baeuen pago-orrixe, biguna, freskue, edo bestela urretxa. Adarrak hartu ta ekarri te kendu orrixe, ostrue, ta bota...

-Danerako denporia zeukotzuein orduan?

-Bai, danerako denporieeee... ba, ez zuan sobran egoten e, eindde! Eindde, eindde. Gero atsaldien be emun ein biher izeten jaten. Goixien parte bat eta atzaldien barriro emuten jaten beste baldekadatxo bat, beste parte bat. Ha berotu orrixokin ta bota, ta gaberako be orrixek eindde itxi, ostruok.

-Joe txarri horrein okelie... oso izan bihar zan gozua, ezta?

-Je je, ez jakixat /etxakixat/ nik mutil. Orduen parte gero etxerako izeten zuan bat edo, ta bestiek, txarri tratantie etorten zuan ta hari ataraten jakuan punturen batera, edo Ozetara edo...

-Arabatik etorten zien, ezta?

-Bai, hara tratua eitten zoan ta ba batek bi te bestiek bat ta beste batek hiru igual, ba, segun zer ein zan, ba, Arabara eruten zittuan txarrixok e, "de venta". Oiñez hartu ta handik Arabara, e! Ta ondo aillegetan bazien, zerbait. Zegatik txarrixek...

-Txarrixak zela faten zien, ardixan modura, lotuta edo zelan?

-Ez, ez ez. Aurrien hartu ta... txarrixek lutute bai, ibiltten dok. Zerien, hanka azpittik, aurreko hanketatik sartzen jakok eta lepuen bueltie emuten jakok eta sokiaz ibiltten dok, baiñe txarrixek dok "un trasto malo", e!

- Nik ez dot sekula ibili.

-Buenooo, buenooo, txarrixek, txarrixek dok, bai.

-Nik basarrixen txarrixek [...] eukitten nauen mutikotan, eta txarrixoi kanpora ataraten neben. Joe, gero harrapaattia e...

-Bai. Harrapetie ta, txarrixek behin apur bat jareindde kostrunbretan badok /bok/, [zaittua, zainttua] egun bat edo bixen etorriko dok /etorrikok/ bere lekure, jana dauen lekure etorriko dok. Baiñe peligrosue dok, zenbait berok hartzen badusk e, mendixen bertan txarrixek jarein ta akabau ta ein dittuk. Beruek hartu hantxe ta...

-Ia. Hori normalien e, zarrauta eukitten zittuein?

-Bai, bai, bai, zerraute, zerraute. Bai, bai. Txarrixek berandako txabolie eindde. Berandako txabolie eindde. Ta atsalde partien, azpikok atara edo eitteko, euzkixek bueltetan-edo ekitten zanian, jarein, ta han buelta bat eitten juen eta, hor muturke edo han inguruen eta azpikok-eta ataratakuen gero barriro sartu te jaten emun ta holan izeten zuan. Ta txarrixoi, buenoo,

txarri barik pastorie? Orduen pentsau be ez.

-Dana aprobetxau, karo ze...

-Bai.

-Gazuria aprobetxaitteko...

-Bai, bai, bai. Nik ez jittuat /etxitxuat/ ia urtietan be eruen e, bihelekue
besterik ez dok eta...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-07-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com